

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko apirilaren 3ko erabakia, COVID-19ren ondoriozko alarma-egoera dela eta kontratazioaren arloko eskumenak aldi baterako eskuordetzeari buruzkoa

Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko ekainaren 21eko, 2019ko uztailaren 11ko eta 2020ko otsailaren 24ko erabakien bitartez, gobernuko zinegotzi ordezkariari eskuordetu zitzaizkien kontratazioaren arloko zenbait eskumen, honela:

“ b) 80.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obren kontratazioa eta 100.000 euroko edo hortik beherako balio zenbatetsia duten hornidura eta zerbitzu-kontratuak, kontratu pribatuak eta administrazio--kontratu bereziak.

Zerbitzu-emakiden eta obra-emakiden arloko kontratazioa Tokiko Gobernu Batzarrarentzat erreserbatuta geratzen da.

c) Aurreko b) letran azaldutako gastuen betebeharrak baimentzea, erabiltzea eta aitortzea.

d) Tokiko Gobernu Batzarrak obren, zerbitzuen, hornikuntzen, eta bestelako administrazio-kontratuen gaineko kontratazioak esleitu ondoren, horiek gauzatzearen ondorio diren obra-egiaztagiriak (azken egiaztagiria barne), fakturak eta beste onestea, kontratu bakoitzeko edukiaren osotasuna edo zati bat izanda ere.”

COVID-19 koronabirusak sortutako larrialdi sanitarioaren ondorioz, eta, bereziki, alarma-egoera deklaratu zeneko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua eman ondoren, hainbat udal kontratu eraginda suertatu dira modu batean edo bestean, jarduerak eta era guztietako prestazioak bertan behera geratu direlarik.

Bereziki nabarmentzekoa da, arlo horretan, COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko aparteko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua, zeinen 34. artikulua — 11/2020 Errege Lege Dekretuak aldatua — kontratazio publikoaren arloko berriazko neurriak ezartzen baititu. Zehazki, COVID-19aren ondorioz nahiz Estatuak, autonomia-erikidegoek edo administrazio lokalak horri aurre egiteko hartutako neurrien ondorioz gauzatzea ezinezko gertatzen den elkarren segidako zerbitzu eta horniduren kontratu publikoak bertan behera utz zitezela xedatzen zen bertan.

Kontratatu duen administrazioak kontratua gauzatzea ezinezkotzat jo dezan — eta, horrenbestez, horrek berekin dakartzan kalte-ordainak jasotzerik izan dadin —, 8/2020 Errege Lege Dekretuak berriazko prozedura bat aurreikusten du, kontratistak abiarazi beharrekoa, zein epe bereziki motzean (5 egun natural) ebatzi behar baita.

Baina, horrez gain, badira beste zenbait kontratu, une honetan gauzatzerik ez badago ere, aurrerago gauza litezkeenak, edo aldi bateko zirkunstantzietara egokitu beharko diren prestazioak.

Horri gehitu behar zaio martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian dekretatutako epe administratiboaren etendura, zeinek, oro har, kontratazio berriak tramitatzea galarazten baitu eta, beraz, ezinbesteko luzapenak deklaratzera behartuko baitu segurki gaur egun indarrean dauden eta aurki iraungitzeak diren zenbait kontratutan.

Azken batean, alarma-egoeraren ondorioz, hainbat erabaki hartu beharko dira, ez bakarrik kontratuak bertan behera uzteko, baizik eta baita kontratuak aldatzeko, gauzatzeko epeak luzatzeko, ezinbesteko luzapenak egiteko eta abar, eta guztia ere modu bizkor eta arinean.

Aldi berean, konfinamenduaren eta isolamendu sozialaren arloan azken asteotan hartzen ari diren neurriek zaildu egiten dute kide anitzeko organoak deitzea eta horiek erabakiak hartzea, eta, bereziki, Gobernu Batzarrak.

Horregatik, zirkunstantzia horiek guztiek gomendatzen dute alarma-egoerak iraun bitartean kontratazioaren arloko eskumenak banatzea, gobernuko zinegotziei eskuordetuz, pertsona bakarreko organo horiek izan daitezten kontratazioaren arloan beharrezko diren neurriak modu arin eta eraginkorrean hartzen dituztenak.

Alarma-egoera altxatzen denean, berriro indarrean jarriko dira, beren osotasunean, Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko ekainaren 21eko, 2019ko uztailaren 11ko eta 2020ko otsailaren 24ko erabakiak, kontratazioaren arloko eskumenak eskuordetzeari dagokionez ere. Hortaz, aldi baterako izaera du eskuordetzeak.

Indarrean dauden xedapenen arabera dagozkion eskumenak aitortzen dizkio Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 127.1 n) artikulua Tokiko Gobernu Batzarrari. Zentzu horretan, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 2. xedapen gehigarriaren 4. atalean xedatzen da biztanle-kopuru handiko udalerrietan Tokiko Gobernu Batzarrarenak izango direla kontratazio-organoen eskumenak, edozein delarik ere kontratuaren zenbatekoa eta iraupena, nahiz eta, Toki Araubidearen Legearen 127.2 artikuluekin bat etorritik, alkateordeei eta Tokiko Gobernu Batzarreko gainerako kideei eskuordetu ahal izango dizkien.

Horrenbestez, erabaki-proposamen hau egiten du alkate lehendakariak:

Erabakia

Lehen xedapena. Alarma-egoerak indarrean dirauen bitartean, gobernuko zinegotziei eskuordetzea, zeini bere eskumeneko esparruan, kontratazioaren alorrean larrialdi sanitarioaren egoeraren ondorioz egokitzen diren gorabeherak ebazteko ahalmena, 463/2020 Errege Dekretuaren eta 8/2020, 10/2020 eta 11/2020 Errege Lege Dekretuen edo horiek ordeztzen edo osatzen dituzten arauen aplikazioa dela medio, edozein delarik ere kontratu-mota eta horien zenbatekoa, baita ebazpen horien ondorio diren errekurtsioak ebazteko ahalmena ere.

Bigarren xedapena. Eskuordetze honek kontratazio-organoen izaera ematen die zinegotzi horiei, beren sailen esku egonik indarrean dauden kontratu guztiei dagokienez, eta ahalmena ematen die kontratu horiek direla eta hartu beharreko erabakiak oro hartzeko, aurreko paragrafoan adierazitako moduan.

Azken xedapena. Dataren egunean jarriko da indarrean erabaki hau, ALHAOn zein egunetan argitaratzen den gorabehera, eta alarma-egoera altxatzea erabakitzen denean utziko indarrean egoteari. Une horretan, berriro indarrean jarriko dira, beren osotasunean, eskumenak eskuordetzeko Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko ekainaren 21eko, 2019ko uztailaren 11ko eta 2020ko otsailaren 24ko erabakiak.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko apirilaren 3an

Alkatea
GORKA URTARAN AGIRRE